

*Izena eman !* \* 05 59 93 25 25 \*  
**diktaketa**  
Sari frango  
irabazteko !  
  
\* 05 59 93 25 25 \*  
*apirilaren 22a aitzin !*  
\* [www.eke.org](http://www.eke.org) \*



# hitz *a*ditza

*Zuzen idaztea da giltza...*



**maiatzaren 6an**  
**Baiona 9:30**etan  
**I.U.T** unibertsitatea (Marracq)



## HITZADITZA

### Zuzen idaztea da giltza...

Ariketa berri bat Iparraldean Euskal kultur erakundeak eta Aek-k antolatutik, 2006ko maiatzaren 6an, goizez, Baionako IUTn.

#### **Ekitaldiaren nundik norakoa.**

*Definizioa/ kontestua.*

Diktatu idatziren ariketa aitzakitzat hartuz, helburua da euskararen, bere erabileraren sustatzea eta bereziki irakurmena eta idazmenaren inguruan diren betiko eritzi ezkorren haustea (zaila da, ez dakit idazten, ezin da ulertu irakurtzen delarik, liburuak ezin irakurriak dira ...) eta jendearen eramatea esperientzia berri batera 'euskaraz idaztera'. Hots, desmistifikazio lana. Bide beretik Iparraldeko 2 euskal idazle ezagutaraziko dira, haiek dutelako testua idatziko (sorkuntza literarioak izanen dira) eta ondotik parte hartzaileekin hitz egingen testuaz, irakurmenak sortzen dituen zailtasunez eta beste. Paradaz bali, idazle hauen lanak ezagutaraztera emanen dira... (azken liburuen aipamena adibidez...)

*Helburuak :*

- Euskaraz hutsik egin gabe idaztea,
- Euskal idazle batzuen ezagurataraztea,
- Euskaldun zahar eta berrien parte harraraztea,
- Parte hartzaileak euskal literaturari interesaraztea, euskal liburuen irakurtzeko motiboa piztea
- Publiko berriak sensibilizatzea gure hizkuntzari eta kulturari.

*Publikoa :*

Euskara ikasten ari direnak, euskaraz idazteko eta irakurtzeko lotsa direnak, edozein euskaldun...

Adina : 16 urtez goiti direnak

**Eguna : 2006ko Maiatzaren 6a, larunbata, 9:30tan**

*Lekua :* Baionako IUTn, fakultatearen ondokoa. Bi gela nagusiak hartuz, bat maila bakoitzarentzat. (Diktaketa bi mailakoa izanen baita).

#### **Testuak:**

Iparraldeko bi idazlek egingen dituzte (350-400 hitz). Sorkuntzak izanen dira, bereziki egun hortarako eginak. Bestalde bi zailtasun mailakoak izanen dira. Bata errexa, bestea zailagoa, eta horregatik dira bi maila izanen parte hartzaileen aldetik.

Testoak Euskaltzaindiaren eskuetatik pasako dira, zailtasunik ez izateko zuzenketa denboran.

**Diktaketaren iraupena:**

30-40 minutu – Ariketaren ondotik atsedenaldirik bat proposatuko da eta segidan idazleak emanen dira ezagutzera, hauekin solasaldi bat sortuz.

**Zuzenketak:** Ariketaren ondotik, AEKko zuzentzaile talde batek segurtatuko ditu zuzenketak, sarien banaketa aitzin. Hona beraz nola iraganen den goizaldea :

- 9 :30tan harrera.
- 9 :45etan geletan sartzea.
- Ongi etorria eta testuaren/testuen irakurketa.
- Diktaketa bera.
- 10:30ak inguruan Pausa, kafe bat hartuz
- Zuzenketa egitea.
- 10:45etan Zuzenketa egiten den bitartean, jendeak posibilitatea ukanen du idazleekin mintzatzeko, testua ikusteko, aipatzeko nun ziren zepoak, agian argitasunak emateko, Idazleen lanen ezagutzeko...
- Eguerdi aitzin, emaitzak agertzea
- Sarien banaketa. (aipatuak izan diren sariak : Hiztegi entziklopedikoak, Hiztegiak, harpidetzak euskal prentsari, Guggenheim, Oteiza eta Chillida museoetarako sartzeak, DVDak, AEKren jantziak, apairuak euskal jatetxetan...)

**Saristatuko direnak:**

Maila bakoitzeko bost hoberenak. Beraz orotara 10 saristatu.

**Izen emateko epea:**

Apirilaren 22ko. Azken epea  
Telefonoz EKera 05 59 93 25 25 edo AEKra 05 59 25 76 09  
Emaillez : [www.eke.org](http://www.eke.org)

**Komunikazioa/ publizitatea:**

Prensaurreko bat egingen da martxoaren 30ean, Baionan, Elkar Megadendan, goizeko 11etan.  
Ondotik prentsan agerpen eta aipamenak, afitxa, soinu dei, EKEn webgunea...

**Xehetasun gehiago eta ariketa berezi bat** : ekeren web gunean [www.eke.org](http://www.eke.org)  
(martxoaren 31tik goiti)



## HITZADITZA

AEK, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea, helduen euskara irakaskuntzan diharduen erakundea da. Euskaraz mintzatzen, irakurtzen eta idazten irakastea baita euskal kultura sakontzeko aukera eskaintzea izan da betidanik AEKren misioa.

Hori dela dela, kalitatezko erakaskuntza eskaintzeaz gain, euskararen erabilera bultzatu nahi dugu eguneroko bizi eta jardueretan. Helburu orokorra euskara eguneroko komunikazio tresna bilakatzea baitugu.

*HITZADITZA* egitasmoa perspektiba horretan kokatzen dugu, jendea eramanez urrats baten egitera kultura idatziari buruz.

Izan ere, euskal literatura baita ere euskaraz diren idatzizko komunikabide guziek euskararen normalizazio eta hedapenaren zerbitzuko diren heinean, euskararen aberastea eta euskal kulturaren murgiltzea ahalbidetzen duten tresnak dira.

Horrez gain, euskaraz idazteak euskararen geroa doi bat gehiago bermatzen du.

Ikasturte honetako berrikuntzetarik bat *idaztailerra* izan zen. Hau da idazmena lantzeko parada eskaintzen dugula interneten bidezko ikastaro batean ([www.aeknet.net](http://www.aeknet.net))

Ildo horri jarraikiz, euskararen ahozko erabilera bultzatzen dugun ber gisan, izan dadin mintzalaguna egitasmoaren bidez, nahiz gure ikasleei mintza pratikarako guneak eskainiz, *Hitzaditza* aitzakitza hartuz, bidea ideki nahi diogu idatzizko adierazpenari. Bai euskaraz idazteari egunero bizian, bai euskal literaturaren ezagutzeari eta euskaraz irakurtzeari.